

Bezeroekiko harremanak

Hainbat izan daitezke bezeroen eta enpresaren arteko harremanaren arrazoiak baina gure enpresak bi motibazio nagusi dauzka: bezero edo kontsumitzaile berriak lortzea eta enpresak dauzkan bezeroei eustea.

1.Bezero berriak lortzea: Gure helburua da aukera berriak eskaini eta jende gehiagok gure proiektua ezagutzea.

2.Bezeroak eustea: Dauzkagun bezeroak pozik egotea nahi dugu eta haiei zerbitzu onena eskainiko diegu gurekin jarraitzeko.

Gure enpresak **bi fase** izango ditu: lehenengo fasea, gu enpresa berria izango gara eta gure helburua merkatuan sartzea eta lehen bezeroak lortzea izango da. Bigarren fasean, merkatuan finkatutua egongo gara eta gure helburua izango da bezero horiei eustea. Horregaitik gure enpresan bi fase bereizten dira.

1.Fasea:*Fase honetan, merkatu-segmentuan lortu nahi duguna da bezero berriak lortzea edo kontsumitzaile berriak lortzea. Horretarak hainbat zerbitzu mota eskaintzen dugu:*

- **Baterako sorkuntza:** Bezeroek, adibidez ezinduak eta familiak, zelako proiektua nahi duten azaltzen digute eta guk horren arabera, proiektu bat sortuko dugu bezeroari ahalik eta onena eskaintzeko.
- **Laguntza pertsonala eskaini:** Hemen tuneaketak nahi dituzten pertsonak egongo dira nagusiki. Haiek zer nahi duten oso argi dute eta guk horri egokitutako zerbitzua eskaintzen diegu. Bestalde, kotxea tuneatu nahi duten pertsonak baina ez daki nola, laguntza pertsonala erabili ahalko du eta guk proiektu bat sortuko diogu.
- **Komunitatea:** Sare-sozialen bidez bideo laburrak sortuko ditugu publizitatea egiteko, baita Youtuben bideo luzeak ere. Aldi berean, topaketak egingo ditugu komunitate bat sortzeko eta jendearekin harremanetan egoteko helburuarekin.
- **Autozerbitzua:** Webgune bat sortuko dugu bezeroak online bidez gure produktuak erosteko, hau da, pieza bereziak eta eskatutakoa etxera helduko zaie tailerretik pasa ez izateko. Horren bidez, erasotasun bat eskaintzen diegu.

2.Fasea: *Fase honetan, merkatu-segmentuan lortu nahi duguna da gure enpresak dauzkan bezeroei eustea.*

- Fase honetan, lehenengo fasean egin dugunaren berdina izango zen hau da, baterako sorkuntza (ezinduei eta familiei), laguntza pertsonala (tuneaketak nahi dutenei) eta autozerbitzua eskainiko genuke.
- **Komunitatea:** Gure helburua bezero batzuek guk egindako lana promozionatzea da, sare-sozialen bidez. Promozio hori egingo dutenei garbiketa doain bat edo %10-%15-ko deskontua eskainiko genieke.